



JANTOKI ZERBITZUA - INFORMAZIOA

Jaun-andreak:

Hezkuntza Sailak jantoki zerbitzua kudeatzeko aplikazio berria ezarri duenez, aldaketa batzuk egongo dira. Hori dela eta, jantokiari buruzko informazioa helarazi nahi dizuegu gutun honen bidez.

1. Egunero, **asteazkenean izan ezik, bi txanda** ditugu zerbitzu honetan:

Egunak	Zer ordutan	Nor
Astelehen, astearte eta ostegunetan	12:30	HHkoak eta LHko 1., 2., 3. eta 4. mailakoak
	13:30	LHko 5. eta 6. mailakoak eta DBHkoak
Asteazkenetan	12:30	HH eta LHkoak (DBHkoek ez dute ikastetxean bazkaltzen)
Ostiraletan	12:30	HH eta LHkoak
	14:30	DBHkoak

Bi txanda daudenean, eguerdiko tartea bi ordukoa izatea onartzen da.

Asteazkenean, berriz, txanda bakarra dagoenez, 1½ h-koa bakarrik onartzen da. Beraz, autobusa hartu behar ez duten jantokiko ikasleak 14:00etan irtengo dira etxera joateko; autobusa hartu behar dutenak, berriz, DBHkoak irten arte itxaron behar dutenez, 14:30ean irtengo dira. Horrek esan nahi du begirale batzuek 14:00etan bukatuko dutela lana, eta 14:30ean beste batzuek; azken horiei ordu erdiz luzatuko diete kontratua.

2. Aplikazioan zuen seme-alaben datuak sartu behar izan ditugu, eta haien arabera izango dira kobrantzak.

3. **Prezio** hauek ezarri dituzte:

Ohikoak: asteen 4 egun gutxienez gelditzen direnak (HHn eta LHn) edo 3 egun (DBHn)	Autobusa hartzen duten ohikoak	3,3 €
	Autobusa hartzen ez duten ohikoak	4,6 €
Ezohikoak: gainerako guztiak		5,2 €

4. **Kobrantzak guk geuk egingo ditugu, baina Hezkuntza Sailak ezarritakoaren arabera:** horrexetarako behar genuen zuen kontu korrontearen zenbakia (IBAN eta guzti).
5. **Hilero kobratuko zaizue berdin,** urte osokoaren batez bestekoa eginda; hau da, ikasle bakoitzak urte osoan jantokia zenbat egunetan erabiltzen duen kalkulatu, eta 10 hilez zatituta. Ikasturte amaieran, bajak egon badira edo aste batean norbaitek huts egiten badu, kontuak egingo dituzte dirua itzultzeko.
6. Irteeretara joateko ohiko bazkariaren orde **piknika** eskaintzen denez, etxetik ekartzen duenari ere berdin kobratuko zaio.
7. Honekin batera doakizuen **fitxa bete, eta ekarri** iezaguzue lehenbailehen: berdin dio baja ala alta emateko den edo edozein aldaketa egiteko. Begiraleak eta sukaldeko langileak kontratatze behar ditugu datuak (jantokiko ohiko erabiltzaileen kopuruak bakarrik hartzen dira kontuan). Informazio hori ikasturtea amaitu aurretik bidali behar da JANGO enpresara eta Hezkuntza Sailera.

Mila esker. Jaso ezazue gure agurra.

Izpta.: Bego Jauregi
Jantokiko arduraduna

Obaba, 2015eko ekainaren 9a